



Recurso 2/2014 errekurtsua Resolución 2/2014 ebazpena

Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Bokala/Vocal

M^a Aránzazu Arana Learte

Bokal idazkaria/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

“Gipuzkoako Donostialdeko eta Bidasoaldeko (DB eremua) Lehentasunezko eta Oinarrizko sareetako errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egitea” izeneko kontratua dela-eta (espedientea: 2-O-3/2014), Jardinería Adaxka SL enpresako (...) eta beste hamaika langile gehiagok kontratazio-arloko errekurtsu berezia jarri dute lizitazioan aurkeztutako proposamen ekonomikoak (3. kartazala) jendaurrean irekitzeko egintzaren kontra. Jarritako errekurtsu horren gainean erabaki hau hartu du aho batez Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, 2014ko irailaren 9an egindako bileran, non parte hartu zuten goian aipatutako kideek.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por (...) y once trabajadores más de la mercantil Jardinería Adaxka S.L. contra el acto de apertura pública de las ofertas (sobre número 3) presentadas a la licitación del contrato de “*ejecución de diversas operaciones de conservación y explotación de las carreteras de la Red de Interés Preferente y Básica y de las vías ciclistas de la comarca de Donostialdea y Bidasoaldea (zona DB) del Territorio Histórico de Gipuzkoa*” (expediente 2-O-3/2014), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 9 de septiembre de 2014, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

Epaitegi honetan idatzi bat sartu da, 2014ko irailaren 5ean, Jardinería Adaxka SL enpresako hamabi langilek sinatua ((...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...)) y (...)). Idatzi horren bidez, kontratazio-arloko errekurtsu berezia jartzen dute ebazpen honen goiburuan aipatutako egintzaren kontra.

ANTECEDENTES DE HECHO

El 5 de septiembre de 2014 ha tenido entrada en este Tribunal un escrito firmado por doce trabajadores de la mercantil Jardinería Adaxka S.L. ((...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...),(...)) y (...)), por medio del cual interponen recurso especial en materia de contratación contra el acto señalado en el encabezamiento de esta resolución.

Idatziarekin batera agiri hauek aurkezten dituzte: beren nortasun agiri nazionalen eta aipatutako enpresarekin sinatuak dituzten lan kontratuen kopia; lizitazioan aurkeztutako proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzeko deialdiaren kopia –egintza, joan den abuztuaren 20an izan zen, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren egoitzan–; eta, errekurtsojartzea iragartzeko, departamentu horri zuzendutako idatziaren kopia.

Errekurtsoa jartzeko legitimazioaren oinarritzat egitate hau hartzen dute: diotenez, orain arte modu jarraituan lan egin dute lan berak xedetzat dituen kontratu administratiboan, aipatutako enpresaren kontura. Argudiatzen dutenez, errekurtsogileetako bat bakarra ere ez da ageri subrogazio eskubidea duten langileen zerrendetan, kontratuko ezaugarri teknikoan agiriari eranskin gisa gehitutakoetan, hain zuzen ere.

Aurrena, azaltzen dute betetzen dituztela errekurtsoa bidezkotzat jotzeko bete behar diren eskakizun formalak, eta zein diren errekurtsoa jartzeko funtsezko arrazoiak. Gero, idatziaren eskaera-atalean eskatzen dute onartua izan dadila, eta, legez ezarritako prozeduraren arabera, baietsia izan dadila, eta deusez deklara daitezela bai proposamenak irekitzeko egintza aurkaratua bai 2-O-3/2014 kontratazio espedientearen arautzen duten baldintza administratibo berezien agiria eta ezaugarri teknikoan agiria, bai eta 3-O-3/2014 eta 4-O-3/2014 espedienteak ere, zeren eta, langileen subrogazio arloan, denek baitauzkate hainbat xedapen, indarrean dagoen laneko legeriaren kontrakoak, eta deusez deklara daitezela kontratazio espediente horiek.

Era berean, “Berebat diot” baten bidez eskatzen dute automatikoki eten daitezela aipatutako hiru kontratazio-espedienteen izapideak, eta arrazoitzat aipatzen dute zer dioten 45. artikuluan Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak.

Acompañan al escrito copia de sus documentos nacionales de identidad y de sus contratos de trabajo con la referida mercantil, copia de la convocatoria al acto de apertura pública de las ofertas que tuvo lugar el pasado día 20 de agosto en la sede del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias, y copia del escrito dirigido a dicho departamento anunciando la interposición del recurso.

Su legitimación para interponer el recurso la basan en el hecho de que, según afirman, hasta la fecha han venido prestando servicios de forma continuada, por cuenta de la citada empresa, en el contrato administrativo que tiene por objeto el mismo servicio. Aducen que ninguno de los recurrentes figura en los listados de personal con derecho a subrogación que se incorporan como anexo al pliego de prescripciones técnicas del contrato.

Tras exponer el cumplimiento de los requisitos formales necesarios para considerar procedente el recurso y los motivos de fondo que lo justifican, en el suplico del escrito solicitan que sea admitido y, conforme al procedimiento legalmente establecido, se estime y se declare la nulidad del acto de apertura de ofertas impugnado, la nulidad del pliego de cláusulas administrativas particulares y del pliego de prescripciones técnicas que rigen el expediente de contratación 2-O-3/2014, así como los de los expedientes 3-O-3/2014 y 4-O-3/2014, por contener todos ellos disposiciones en materia de subrogación de personal contrarias a la legislación laboral vigente, y la nulidad de esos expedientes de contratación.

Mediante otrosí solicitan asimismo la suspensión automática de la tramitación de los tres expedientes de contratación citados, invocando el artículo 45 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP) aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.



ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Diotenez, errekurtsoa jartzen dute lizitazioan aurkeztutako proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzeko egintzaren kontra, joan den abuztuaren 20an izan baitzen, baina, egia esateko, gero ez dute inolako aipamenik egiten egintza horren garapenaz. Errekurtsoarekin batera, deialdiaren kopia aurkeztu baino ez dute egiten, Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratatzaileren profilean argitaratutakoa, alegia.

Izatekotan, izapide hutsa den egintza bat da, eta ez du betetzen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 40.2.b) artikuluan eskatutako baldintzetako bat bakarra ere, beraren kontra halako errekurtso bat jarri ahal izateko. Izan ere, zuzenean edo zeharka, ez du erabakitzen esleipenari buruz; ez du eragozten prozedurak aurrera jarraitzea; eta ez du sortzen defentsagabeziarik edo eskubide eta interes bidezkoetan kalte konponezinik.

Nahiz eta errekurtsoa egintza horren kontra jartzen den, errekurtsoan, egia esan, zera argudiatzen da: langileen subrogazioari dagokionez, kontratuko agiriak zuzenbidearekin bat ez etortze ustekoa, eta, berez, “Berebat diot” batean eskatzen da, ikusi dugun bezala, deusez deklaratu daitezela agiriak, ez bakarrik kontratu honetakoak, baita ere departamentu berak aldi berean lizitatutako xede beretsuko bi kontratazio espedienteetakoak.

Dena dela, modu bakarra zegoen azaldutako auziak aztertzeko, hots, errekurtso bat jarri kontratuko agirien kontra, hamabost egun baliioduneko epean jarri ere, hala ezartzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 44.2.a) artikuluan, baina interesdunek ez zuten halakorik egin, eta orain ezin dute hori konpondu errekurtso hau jarri aurkaratu ezin daitekeen izapidezko egintza baten kontra.

Bidezkoa da, beraz, errekurtsoa ez onartzea, izapide gehiagoren beharrik izan gabe.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

El recurso dice interponerse contra el acto de apertura pública de ofertas celebrado el 20 de agosto último, pero lo cierto es que ninguna referencia se hace luego al desarrollo de dicho acto. Únicamente se acompaña la convocatoria para su celebración, publicada en el perfil del contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Se trata, en todo caso, de un acto de mero trámite que no reúne ninguno de los requisitos exigidos por el artículo 40.2.b) TRLCSP para que pueda ser objeto de un recurso de esta naturaleza. En efecto, no decide directa o indirectamente sobre la adjudicación, ni determina la imposibilidad de continuar el procedimiento, ni produce indefensión o perjuicio irreparable a derechos o intereses legítimos.

Aunque el recurso se interpone contra dicho acto, lo que en él se alega es, en realidad, la pretendida disconformidad a derecho de los pliegos del contrato en lo relativo a la subrogación de trabajadores, y, de hecho, en el suplico se pide, como hemos visto, la nulidad de los pliegos, no ya solo de este contrato, sino también los de otros dos expedientes de contratación de similar objeto licitados simultáneamente por el propio departamento.

Ahora bien, el examen de las cuestiones planteadas solo habría podido llevarse a cabo en un recurso interpuesto contra los pliegos del contrato en el plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 44.2.a) TRLCSP, cosa que los interesados no hicieron y que no pueden subsanar ahora interponiendo el presente recurso frente a un acto de trámite no susceptible de impugnación.

Procede, en consecuencia, inadmitir el recurso sin necesidad de más trámites.

Ondorioz, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ERABAKITZEN DU

ACUERDA

Ez onartzea Jardinería Adaxka SL enpresako (...) eta beste hamaika langile gehiagok jarritako kontratazio-arloko errekurtso berezia izapidetzea.

Inadmitir a trámite el recurso especial en materia de contratación interpuesto por (...) y otros once trabajadores de la mercantil Jardinería Adaxka S.L.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 49.1 xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2014ko irailaren 9a / San Sebastián 9 de septiembre de 2014.

-